

Atlas suziria

Deskribapena

Euskoiker fundazioko BISKY Team taldearen eskaera, ATLAS izeneko suziriaren fabrikazioan karbono zuntzeko hodiekin fuselaje modularra egiteko. “Errez muntatzeko” sistema izan behar zuen, karbono zuntzeko pareta finadun hodi luzez egina, horiek lotzerakoan sortutako deformazioek eta karbono zuntzen mekanizazioak dakartzaten zailtasunekin.

Egindako lana

Eskolako FANUC mekanizazio zentrua erabili zen, 4/5 ardatzeko mahaian fibrazko hodia lotu eta ez deformatzeko lotze-sistema berezi bat erabiliz, karbono zuntzaren mekanizazio zehatzerako lan baldintzetan arituz.



Emaitza

ATLAS, BISKY TEAM taldeak jaurtitako lehen suziri modularra izan zen. 1,8m-ko garaierarekin eta 103mm-ko diametroarekin. ATLAS 2023-07-02-an aireratu zen. 2197m-ko goia hartuz, 760km/h-ko gehieneko abiadurarekin eta 12g-ko azelerazioarekin.

Jaurtiketa honekin suziriaren diseinu modular berria probatu nahi izan zen, banakako moduluen bidez erraz ensanblatzeko aukera ematen zuena. Berreskuratze-sistemaren hobekuntza bat ere aurreikusten zen, espero genituen emaitzak izan ez zituena, eta etorkizunerako HERMES berreskuratze-sistemarekin hobetu nahi dena.

